

LURRA ETA HIZKUNTZA

Askapen-teologiaren argitan

Sarrera


Titulo aski konplexua dauka lan honek Euskal Herriaren eskakizunak (lurraldea, hizkuntza, ekonomia, subiranotasuna) eta askapen-teologia. Badirudi hor aipatzen diren “eskakizunak” Euskal Herriaren askapenerako bidean ildo funtsezkoak direla Herriaren lau dimentsio horiek. Horregatik, askapen teologia askatasun pertsonal eta kolektiboaren bidegintzan egiten den gogoeta denez honentzat ere funtsezkoak dira dimentsio haiek.

Neure aldetik, eta gaia piska bat biltzeko eta ordenatzeko, **lurra eta hizkuntza** ardatzetara ekarri ditugu. Baina gure gogoetaldiaren abiaburua eta helburua **subiranotasuna** izango da.

Subiranotasuna

Subirano hitzak “gorena” esan nahi du, eta botere gorena deitu izan da horrela edo boteredun gorenari eman izan zaio horrelako titulua: erregeari eta aita santuari Eliza mailan.

Subiranotasunaren teoria, ordea, alor politikoan landu da Erdi Arotik hona estatu modernoerik begira bereziki. Estatuaren subiranotasunak, kanpoari begira, beste Estatuakiko independentzia adierazi ohi du, batetik; eta, bestetik, barrura begira, erakuntza estatalaren eta gobernu politikoaren barruan, estatuaren beraren gailentasuna adierazten du, bestelako erakuntza sozial, erlijiozko edo politikoen gainetik dagoena. (Hemen ez



Paulo Agirrebaltzategi

gara sartuko estatutaren eta Elizaren arteko eztabaida eta gatazka historikoan, bataren eta bestearen subiranotasunari buruzkoan).

Demokrazia filosofiko eta politikoak herriari aitortu dio subiranotasuna: Lurralde jakin batean politikoki eratuta dagoen gizarteak da hemen herria. Eta herriaren subiranotasunak zera adierazten du funtsean: botere politikoaren iturburua herria bera dela. Horren oinarrian dago, ordea, herriaren subiranotasunaren beste dimentsio behinen hau: Lurralde batean bizi den gizarteak lurralde horretan duen **nagusitasuna**, eta horren arabera bere burua gobernatzeko (“autogobernatzeko”) duen eskubidea: auto-

determinazio-eskubidea, esango genuke. Adiera honetan, bera, herriaren subiranotasunak, bere lurraldeko nagusitasunarekin batera, bere buruaren jabetasuna “burujabetasuna” eta beste inoren eskuko ez izatea eskukotasuna = independentzia. Nabari denez, beraz, Herriaren subiranotasuna lurrari lurraldeari doa erabat lotuta.

Guzti hori maila eta alor politiko-juridikoan dago esanda. Baina subiranotasunak badu bere adiera bibliko-teologikoa ere. Kristau fedearantz eta teologiarentzat **Subiranoa** (maiuskulaz) jainkoa da, Jainko gorena. Mundu osoarekiko Berak duen nagusitasuna, jauntasuna eta ahalguztia adierazten du teolo-


giarentzat subiranotasunak; eta, aldi berean, izaki guztien mirabetasuna eta zerbitzaritza Jainkoarekiko. Kreazioan oinarritzen da Jainkoaren subiranotasun unibertsa. Kreazioko kondairak bereziki, eta Biblia osoak orokorki, Jainkoaren nagusitasun goren hori aldarrikatzen du, sorkarien aldetiko menpekotasuna eskatzen duena.

Bibliaren arabera, ordea, sorkari guztien gaineko eta nagusi gizakia ipini zuen Jainkoak: “Egin dezagun gizona geure antzeko eta irudiko, eta agindu biezaie itsasoko arrainei, zeruko hegaztiei, aberrei, lur osoari eta lurgainean narraz dabiltzan basapizti guztiei” (Gn 1,26). Bere irudiko eginez, Jainkoak kreazioa osoari buruz duen bere nagusitasunean partaide egin du gizakia, gauza guztiak beraren zerbitzurako eskainiz. Jainkoaren subiranotasunetik gizakiaren subiranotasunera igarotzen da, beraz, kristau-teologia. Hala ere, gizon-emakumeen munduko gauzekiko subiranotasuna edo gailentasuna ez da absolutua, Jainkoaren menpekota eta Haren zerbitzuko baizik.

Teologiaren ikuspegitik, gizakiaren izadiarekiko eta gizartearen —Herriaren— bere lurraldearekiko nagusitasuna, Jainkoaren subiranotasun absolutu horretan oinarritzen da; eta gizon-emakumeen Jainko-irudiko izatean gauzatzen da.

El Dios de la Biblia, se nos muestra como defensor de la tierra, no de un castillo celeste en contraposición de la tierra como ha pretendido determinada espiritualidad. La garantía de la soberanía humana sobre la tierra es la soberanía de Dios, en contra de los ricos que han dejado sin tierra a los pobres y en contra

de los grandes imperios que han despojado de su tierra a los Pueblos pequeños.



Lurra

“Hasieran jainkoak egin zituen zeru-lurrak” (Gn 1,1): deklarazio handi honekin hasten da Biblia. Honen titulu nagusitzat ipinita dagoela dirudi; eta, bestalde, kreazioaren poeman lelo gisa errepikatzen da (Gn 2,1; 2,4). Esaldiak izadi, unibertso osoa adierazten du. Guk hemen bikotearen bigarren terminoa hartuko dugu: Lurra.

Lurra (hebraieraz *aretz*) esangura sakon eta oparoz betea dago Biblian. Israeldarrentzat gainera konnotazio emozional bizia du: ‘Eretz Israel’ Jainkoak agindutako lurra da, lurralde santua, Israelen aberria. Genesi liburuko lehen 10 kapituluek ariko gara hemen.

Sei sailetan edo bana genitzake lurra adierak kapitulu horietan.

1. **Lurbira planeta “Zeru-lurrak”** esaldian agertzen da nabarmenen adiera hori. eguzkaiak eta ilargiak argitzen duten gure planeta da lurra.

2. **Lur lehorra.** Itsasoaren aurrez aurre, non arrainak ipintzen bait ditu Jainkoak, lurra deritza lehorrari, hegaztien eta beste animalien bizilekuari. Horri ere **aretz = lurra** deritza Genesiak.

3. **Ama-lurra:** gizakiaren bizilekua eta etxea. Genesiaren lehen kapitulua panorama horrekin amaitzen da: gizakia bere ingurugiroan, landare berdez, arbola fruituemaileez eta animalia lagunez inguratua. Jainkoaren bedeinkapena du gizakiak; beronek ipintzen dio izena animali-espezie bakoitzari, etxeko aberrei ipintzen zaien bezala. Lurra-aren nagusi eta bertako animalien ugazaba izateko agindua hartzen du Jainkoarengandik.

4. **Lurra, gizakiaren arloa.** “Hazi eta ugaritu zaitzte eta bete ezazue lurra” (Gn 9,1): bedeinkapenarekin batera gizakiak agindu horixe hartzen du. Beharaxeago zehazten da agindua: “Hazi eta ugaritu zaitzte; zabaldu zaitzte lur osora eta nagusitu zaitzte horretaz” (Gn 9,7). Bere bertakotasunaz betez eta bere lanaz landuz lortzen du gizadiak lurra-aren nagusitasuna, eta bere bizileku egoki bihurtzea du hori. Bere lanaren, ekintzaren, ihardueraren alorra du lurra.

5. **Lurra, gatazka sozialen sustraia eta giza dramaren eskenatokia.** Abel eta Kain anaiekin hasten da lurraren banaketa eta horretaz nagusitzeko lanbideen bereiztea: Kain nekazaria da, eta Abel, artzaina. Gizarteko gaiztakeriaren zelai bihurtzen da lurra, eta Jainkoaren madrikazioa eta kastigua —uholdea— merezi du lurra. Baina berriro jainkoaren bedeinkapenarekin hasten da lurra-aren nagusitzea gizon-emakumeen aldetik, Noe-rekin eta beraren seme-alabekin (Gn 9,1).

6. **Lurra, Herri bakoitzaren lurraldea.** Genesiaren 10. kapitulan kontatzen da lurraren birpopulazioa, uholde handiaren ondoren. Noerengandik sorturiko familien arabera, leinu ez-

berdinak eratuz doaz, bakoitza bere hizkuntza eta lurraldearekin, Herri (nazio) bezala (ik. Gn 10, 5.20.31). Ez du Isarelek bakarrik bere aretz-lurra; beste Herriek ere berena dute. Euskal Herria izenearen arabera, "Herria" adierazten du hemen lurra.

izan ere, aretz = lurbira aretz-lurralde bihurtzen da, gizon-emakumeak ugaritzean, munduan zehar zabaltzean eta leinuak banatzean, bakoitzaren hizkuntza eta lurralde eta guzti, Herriak (nazioak) eratuz.

Hizkuntza —eta aipaturiko testuetan esan daiteke hizkuntza kulturatzat ulertzen dela— eta lurraldea (lurra), beraz, Herri bakoitzaren azaugarriak eta bereizgarriak dira. hizkuntzaren bidez (izena ezarriz) eta lanaren bidez (lurra landuz) betetzen dute gizon-emakumeek Jainkoagandik harturiko betekizuna: Izadiak (lurraz) nagusitza.

Según el pensamiento bíblico, la característica de los Pueblos es su territorio, y su territorio recibe el nombre de los propios Pueblos. Un Pueblo sin territorio es un Pueblo sin fundamento.

Jainkoa, giza lurraren defendatzailea

Gizakia lurrari atxekia dago; bere lurrarekin bat egiten du. Lurraz nagusitza bakoitzaren bizitzako eta gizadiaren historiako eginkizuna dute gizon-emakumeek.

Lurrarekiko giza nagusitasunak, ordea, xehetasun batzuk eskatzen ditu teologiaren aldetik, Jainkoaren subiranotasunaren argitan. Azken batez, "Jainkoarena da lurra eta lurra betetzen duten guztiak" (Sal 23,1). "Jainkoarena da lurra" titulua eman zion erromako San Pauloko abate Franzoni-k, bere kargua

utzi, pobreen aldeko aukera egin eta oinarriko kristau-elkarte batekin bere fedea bizitzera aldatu zenean.

Goian aipaturiko lurraren hiru ikuspegi nagusi eta teologiaren aldetik garrantzizko direnak zabaldu nahi ditugu hemen, ohar txiki batzuk gaineratuz; hiruretan lurraren, alorraren, giza nagusitasuna (subiranotasuna), argitu ahal izango dugu, Jainkoaren subiranotasunaren argitan. Hauek dira hiru dimentsioak: Ekologikoa, Soziala eta Nazionala. Gogoeta honetarako hirurak bereizten baditugu ere, izatez bereiztezinak dira bizitzan.


a) **Ekologikoa.** Lurra gizadiaren bizilekua, etxea, izateari dagokio dimensio hori. Ezaguna da oikos etxea dela grezieraz; hortik dator ekologia, eta baita ekonomia ere. Gizakiak, bere laneko alortzat eta bere irabazbiderako baliabidez bakarrik hartzen duenean lurra, horren ikuspegi ekonomiko soilean gelditzen da. Lurraren giza subiranotasunaren zentzu ekonomiko soilak, ordea, berron zentzu ekologikoa ukatzen du sarritan: hau da, lurra gizadiar bizibiderako lekua —etxea— dela, eta ez ustiatzeko mehatze soila.

b) **Soziala.** Biblian badago erakunde baten berri, jubileu-urte edo zapaturtearena. Exodo liburuak (23, 10-11) ematen digu horren berri: "Sei urtez ereingo duzu zure lurra eta bilduko duzu horren emaria; baina zazpigarrenean, lurra landu gabe utziko duzu, zure herriko behartsuek jan dezaten, eta, han geratzen dena, landako abereek jango dute. Beste horrenbeste egingo duzu zure mahasti eta olibadiari buruz. Ex 21, 1-6an esaten denez, zapaturte horretan esklabuei ere askatasuna eman behar zitzairen. Zentzu ekologikoa eta soziala, biak ditu zapaturteak. "Lurra, lantzen duenari" araua gaur egun eskakizun sozialtzat hartu ohi dena, instituzionaldurik agertzen zaigu Biblian, Jainkoaren Kreazio ondoko zazpigarren eguneko atsedendian oinarritua.

c) **Nazionala.** Aipatua dugu lehen Genesiako 10. kapitulua: bertan Jainkoaren bedeinkapenaren babespean ipintzen dira gizadiaren barreiakuntza

eta Herrien banakuntza. Deuteronomio-ko 32. kapituluko Moiseren kantuak esplizitoago Jainkoaren beraren asmo eta eragintzat aitortzen ditu Herrien banaketa eta horien aniztasuna, dioenean: "Jaun Goikoak Herri bakoitzari bere ondarea ("lurraldea" itzultzen dute batzuk) eman zionean, eta Adanen semeei banatu zienean, Herrien mugak ezarri zituen, Jainkoaren semeen kopuruaren arabera" (Dt 32,8). jainkoaren semeak "nazioen (edo etnien) ainguruak" dira, exegeten ustez: Biblian agertzen den gai arrunta, hizkuntzen aniztasunari lotuta. Azken batez, ikuspegi honetan, Herrien ezaugarria da beraien lurraldea, eta horien izena hartzen du beraien lurraldeak ere, nolabaiteko kidetasuna ezarriz. Bere lurralderik gabeko Herria oinarririk gabe dagoela esan daiteke.

Bibliako Jainkoa, azken batez, giza lurraren defendatzaile agertzen zaigu, ez zeruko gazteluren batena, lurraren kontra, nolabaiteko izpiritualitateak nahi izan duenez. Lurrarekiko giza subiranotasunaren bermea Jainkoaren subiranotasuna da, pobreak lurrik gabe utzi ditzuten aberatsen kontra eta Herri txikiak lurralderik gabe utzi nahi ditzuten inperio handien aurka.



Hizkuntzen “konfusioa” ala “liberazioa”?

a) Zentzu antropologikoa

Hizkuntza dago gizakiaren mundua-
rekiko antropozentrismoaren oinarrian.
Gaurko antropologia linguistikoak dio,
hizkuntzaren bitartez gizakiak bere in-
guruko mundua egituratu eta ordenatu
egiten duela. Bestalde, denon esperient-
zia hurbilekoa da seguruenik, zerbaiten
izena jakiteak halako segurtasun psiko-
logikoa ematen digula eta nolabait gau-
za horrekiko nagusitasuna ematen digu-
la.

Gizakiak animaliei eta gauzei izena
emateko duen ahalmen eta gaitasuntzat
agertzen digu Genesiak hizkuntzaren
funtzio “estrukturazaila”, taxutzaila eta
eskuratzaila hori. Jainkoak gizakiaren
aurrean ipini zituen animaliak, landa-
reak, eta beste, izena ezarri ziezaien.
Gizakiaren munduarekiko nagusitasu-
na, subiranotasuna, hizkuntzaren erabi-
leran nabarmentzen da bereziki, Horixe
da hizkuntzaren zentzu antropologiko
nagusienetarikoa bat. Baina aldi berean,
zentzu teologiko sakona duena, Kain-
koak gizakiari eman dion munduareki-
ko nagusitasun hori gauzatzeko baliabi-
dea bait da; gizakia Jainkoaren irudia
izatearen dimentsio behinenetakoa giza
hizkuntzan datza.

b) Hizkuntza eta botere soziala: Profeten betekizuna

Noam Chomsky, gaurko hizkuntza-
lari handienetako eta ezagunenetako
batek dio: “Es sabido que el poder eco-
nómico está profundamente penetrado
por el poder del del lenguaje; el dominio
de la gramática normativa es considera-
do como uno de los criterios de la dife-
rencia y de la discriminación social”.
Eta gugandik askoz hurbilagokoa du-
gun Sánchez Carrión-ek askozaz gogo-
rrago juzgatzen du oraindik boteredu-
nen aldetiko hizkuntzaren manipulazioa:
“El poder, cáncer de nuestra libertad, se
reproduce en nuestro lenguaje”. Eta beste
nonbait dio: “Las minorías que contro-
lan el poder —ya sea político, económi-
co, cultural, científico o religioso— ejer-

**Dios se nos muestra en
lucha contra las preten-
siones de dominio lin-
güístico de los podero-
sos del mundo y a fa-
vor de los Pueblos y de
sus lenguas. No sola-
mente como el dador
de la capacidad lingüís-
tica y su correspondien-
te dominio.**

cen una continua distorsión sobre esa
propiedad común, e irrenunciable, que
es el lenguaje, para su propio beneficio
y a espaldas de los intereses de la mayo-
ría. Este “apropiamiento lingüístico” no
es por sutil menos violento que otras for-
mas más conocidas y mejor estudiadas
de explotación”.

Munduarekiko nagusitasunaren oi-
narri behinenetako bat hizkuntzan bal-
din badago, ulergarriagoa gertatzen zai-
gu boteredunak horretaz baliatzea, hain
zuzen, beren botere soziala ezartzeko.
Boteredunen aldetiko hizkuntzaren
“apropiazioa” manipulazioa eta imposi-
ziozko erabilera hori oraindik sakontze-
ko dago soziologoaren aldetik; eta batez
ere horrekiko jendearen jaberazpena,
kontzientzia, argitu eta zabaldun beha-
rrekoa da.

Gauza bera gertatzen zen noski
Bibliako mundu zaharrean ere. Bada,
ordea, beste erakunde oso garrantzizkoa
Biblian: Profetena. Horiexek agertzen
zaizkigu Itun Zaharrean hitzaren aska-
tzailatzat. Ezaguna da borroka horren
zailtasuna eta profeten beraien uzkurta-
suna eta erresistentzia lan horretan sar-
tzeke: Boteredunek ezarri nahi duten
hizkuntzaren askapen-borroka da, az-
ken batez horiena. Eta hitzaren askata-
sun-borroka horrexegatik izango dira,
hain zuzen ere, erasoan garriak eta
sarritan hilak. Profetismoaren hizkuntz
askapenarekiko funtzioa benetan irudi-
tzen zait funtsezkoa eta sakondu beha-
rrekoa.

c) Babelgo dorrean Hizkuntzen askapena eta hizkuntzazko askapena

Babelgo dorrearen mitoa “hizkuntz
konfusioarena” bezala aurkeztu izan
dute. Nik neronek ere titulu horixe eman
nion neure liburu batetan kapitulu ho-
rren azalpenari; ikuspegi horretan
kontra joateko baldin bazen ere. Izatez,
gero eta gehiago ulertzen dute mito hori
inperioaren aurkako eta herri zapaldunen
aldeko Jainkoaren askapen-ekintzatza.

Genesiako hamargarren kapituluan
herrien eraketa eta banaketa, beraien
lurralde eta hizkuntza eta guzti Jainko-
aren bedeinkapenaren ondorioztat azal-
tzen baldin bada, kapitulu honetan ez
litzateke Jainkoaren madarikazioaren eta
kastiguaren ondorioztat hartuko. Alde-
rantziz, Babelgo dorrea, herri txikiak —
minorizatuak— menperatu nahi eta ho-
rretarako hizkuntza bakarra ezarri nahi
duten inperioaren sinboloa da; hau da,
herrien eta hizkuntzen zapalkuntza in-
perialistaren sinboloa. Inperioaren ido-
latria.

Horren kontra altxatzen de Jainkoa:
pretentsio hori txikitu eta suntsitu nahi
du; eta Herrien eta berauen hizkuntz
aniztasuna eta askatasuna defenditu.
Hizkuntzen aniztasuna gizon-emaku-
meen, gizarteen eta Herrien arteko kon-
fusiorako, gatazkarako eta borrokorako
gertatzen da, horietako batek, asmo
inperialistaz, bere hizkuntza ezarri nahi
duenean, besterenak ukatuz, murriztuz
edo minorizatzuz, heriotzaraino erama-
nez.

Horregatik, Jainkoa agertzen zaigu,
ez bakarrik giza hizkuntzaren dohaina-
ren eta hizkuntzazko boterearen eta na-
gusitasunaren emaitza bakarrik, eta bai
mundu honetako boteredunen pretensio
lingüístico zapaltzaileen kontrato
borrokatzaile ere, eta herrien eta beraien
hizkuntzen askatzailea Herrien hizkun-
tzazko askapenaren eragile!